

MERKATARITZAKO BULEGO TEKNIKOETARAKO KUDEAKETA GIDA

KLIK EGIN
HASTEKO



AURKIBIDEA

HITZAURREA	03	2.3.1.- ESTRATEGIAREN KUDEAKETA	09
1.- ERAGILEAK PROGRAMA, EUSKADIKO MERKATARITZAKO BULEGO TEKNIKOEN TESTUINGURUAN	04	2.3.2.- BEZEROEN ETA PROZESUEN KUDEAKETA	15
1.1.- EUSKO JAURLARITZAREN MERKATARITZAKO BULEGO TEKNIKOEN (MBT) SAREA	04	2.3.3.- GIZARTEAREKIKO ETA INGURUMENAREKIKO KONPROMESUAREN KUDEAKETA	23
1.2.- MERKABIDE - ERAGILEAK PROGRAMA	05	2.3.4.- BERRIKUNTZAREN KUDEAKETA	28
2.- KUDEAKETA AURRERATUAREN EREDUA, EUSKADIKO MERKATARITZAKO BULEGO TEKNIKOAK KUDEATZEKO ERREFERENTE GISA	06	2.3.5.- EMAITZEN KUDEAKETA	34
2.1.- KUDEAKETA AURRERATUAREN EREDUAREN SARRERA	06	1. ERANSKINA - EUSKADIKO MERKATARITZAKO BULEGO TEKNIKOAK KUDEATZEKO SISTEMATIKAK ETA TRESNAK	38
2.2.- KUDEAKETA AURRERATUAREN EREDUA, KUDEAKETA SISTEMA (AUTO) EBALUATZEKO TRESNA GISA	07	2. ERANSKINA - EUSKADIKO MERKATARITZAKO BULEGO TEKNIKOAK KUDEATZEKO PRAKTIKA ONAK	40
2.3.- KUDEAKETA AURRERATUAREN EREDUA, KUDEAKETAKO PRAKTIKA ONEN ERREFERENTE GISA	09		

HITZAURREA

Eusko Jaurlaritzaren Merkataritzako Bulego Teknikoetarako “Kudeaketa eta praktika onen gida” kudeaketarako oinarrizko erreferentzia da bulego horien ardura duten merkataritza teknikarientzat, eta Eusko Jaurlaritzaren Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko Merkataritza Zuzendaritzak sustatutako eta EUSKALITekin lankidetzan garatutako “Merkabide-Eragileak” Programan landutako metodologiak eta tresnak biltzen ditu.

2023an berrikusi eta eguneratu da, eta Programaren esparruan Bulego horien arduradunek banaka eta taldean garatutako tresna berriak eta kudeaketako praktika onen adibideak txertatu dira.

Euskalitek eskerrak ematen dizkie merkataritza teknikariei eta talde tekniko laguntzaileari, Gida hau eguneratuta mantentzeko egindako ekarpenengatik eta dedikazioagatik, baita Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Zuzendaritzari ere, Eragileak Programa babesten jarraitzeagatik.

Bilbo, 2023ko abendua.

1 ERAGILEAK PROGRAMA, EUSKADIKO MERKATARITZAKO BULEGO TEKNIKOEN TESTUINGURUAN

>> 1.1.- EUSKO JAURLARITZAREN MERKATARITZAKO BULEGO TEKNIKOEN (MBT) SAREA

Eusko Jaurlaritzaren Merkataritzako Bulego Teknikoen sarea Euskal Autonomi Erkidegoko merkataritza-enpresei laguntzeko aktibo nagusietako bat, eta balio handiko lan-taldea da politika publikoak koordinatzeko eta kudeatzeko. Sektoreari lotutako jarduerak eraginkortasunez egiteko beharrezko aholkularitza eta trebetasuna ematen dute. Hori guztia, hiriko merkataritzaren problematikaren hurbiltasunetik eta ezagutzatik abiatuta.

Bulego hauek, beren eginkizunaren garapenean, ahalegina bideratu behar dute, eta Merkataritza Sailaren politikak kudeatu behar dituzte. Talde integratu eta koordinatu gisa funtzionatu behar dute, espezializazio sektorialak eta zonakoak modu egituratu eta eraginkorrean betez. Ildo horretan, merkataritza-banaketaaren sektoreak dituen erronka berriei aurre egiteko laguntza espezializatua eman behar dute, eremu bakoitzeko saltokien lehiakortasuna hobetzeko prozesuak bultzatuz eta denboran iraungo dutela ziurtatuz.

Bulegoak hainbat tokitan: merkatori elkarteak edo elkarte mistoak, baita horien elkarketak ere, izan eskualdekoak zein udal mailakoak; udalak, eta horiek edo tokiko beste erakunde batzuek sustatutako garapen agentziak edo erakundeak; federazioak edo gehienbat merkatori elkarteen presentzia duten lurralde eremuko federazio edo taldeak; eta izaera gremialeko eta lurralde eremuko hiriko merkataritza jarduerari lotutako merkatori edo zerbitzu elkarteak.

Banaketa komertzialean espezializatuta daude, beren zerbitzuak doakoak dira, eta egiten duten jarduera hiriko merkataritza ekonomia sustatzera bideratuta dago, xede hauetarako jarduerak garatuz:

- a. Eraldaketa digitaleko prozesuei buruz sentsibilizatzea eta sustatzea
- b. Berrikuntzarekin zerikusia duten prozesuei buruz sentsibilizatzea eta sustatzea
- c. Kudeaketaren kalitatearekin zerikusia duten prozesuei buruz sentsibilizatzea eta sustatzea
- d. Lankidetzaren prozesuak bultzatzea, hiri inguruneetan
- e. Lankidetzaren prozesuak bultzatzea, banaketa katean
- f. Ekintzailetzaren eta enpresa transmisioaren arloko prozesuen jarraipena egitea eta horiek bultzatzea
- g. Hirugarren sektoreko estrategiak sustatzea udal edo eskualde mailan (ostalaritza, zerbitzuak, kultura, ondarea edo beste sektore batzuk)
- h. Kontsumitzaileentzat balio erantsia sortzeko eta xedeko publikoa fideltatzeko ekintzak garatzea
- i. Garapen jasangarriarekin eta/edo energia efizientziarekin lotutako estrategiak garatzea, baita autokontsumorako eguzki energia fotovoltaikoa ezartzea sustatzen duten Energia Komunitateak sustatzea ere

**MERKATARITZAKO BULEGO
TEKNIKOEN SAREA
(2022-2023 DEIALDIA)**

**KLIK EGIN
GRAFIKOA
IKUSTEKO**



1 ERAGILEAK PROGRAMA, EUSKADIKO MERKATARITZAKO BULEGO TEKNIKOEN TESTUINGURUAN

>> 1.2.- MERKABIDE - ERAGILEAK PROGRAMA

Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren Eragileak Programa, EUSKALIT-KUDEAKETA AURRERATUAK kudeatua, 2017an abiatu zen, eta urteroko deialdietan garatu da, azkena 2023an, helburu hauekin:

1. Kudeaketa Aurreratuaren Eredua eta haren aplikazio praktikoa ezagutaraztea
2. Kudeaketa tresnak ezagutaraztea, merkataritza sektorean aplikatu ahal izateko, eta, hala sektoreari orientabidea eskaintzeko, dinamizatzaile roletik
3. Merkataritzako Bulego Teknikoetan bertan kudeaketa tresnak aplikatzea, funtzionamendua hobetzeko
4. Praktika onen eta arazo komunen arteko truke foro bat sortzea parte hartzaileen artean

Taldeko aurrez aurreko zein online prestakuntza-ekintza saioetan eta Bulegoko arduradun bakoitzarekin egindako banakako tutoretza saioetan egituratu da, eta, batez ere, parte hartzaileentzako erabilgarritasun praktikoa bilatu da.

Taldeko lan saioetan, Kudeaketa Aurreratuaren Eredua eta horrek Bulegoen beraien kudeaketa hobetzeko erreferente gisa eman dezakeena ezagutarazi da, baita garatu eta ezarri beharreko kudeaketa tresna eta sistematikei dago-kienez ere.

Banakako tutoretza saioetan, berriz, tresna horiei (kudeaketarako formatuak) buruzko hausnarketa eta azterketa egiteko eta bulego bakoitzean praktikan aplikatzeko behar den laguntza eman da, eta horrek gauzak egiteko modua eta, ondorioz, emaitzak hobetzen lagundu du.

2 KUDEAKETA AURRERATUAREN EREDUA, EUSKADIKO MERKATARITZAKO BULEGO TEKNIKOAK KUDEATZEKO ERREFERENTE GISA

>> 2.1.- KUDEAKETA AURRERATUAREN EREDUAREN SARRERA

Kudeaketa aurreratua da interes talde guztientzat ahalik eta EMAITZARIK one nak sortzen dituen, modu jarraituan eta orekatuan. Kudeaketa estilo parte hartzaileagoekin lortzen da hori, pertsonen konpromiso handiagoa lortuz eta bezeroekiko eta beste interes talde batzuekiko harreman sendoagoak sortuz, emaitza hobek eta gogobetegarriagoak lortzeko.

EUSKALITek, euskal erakundeetan kudeaketa aurreratua sustatzeko eta Euskadiko lehiakortasunari eta berritzeko gaitasunari, eta garapen iraunkorrari laguntzeko xedearekin, Kudeaketa Aurreratuaren Eredua garatu zuen 2015ean, erakundeak beren kudeaketaren hobekuntzan orientatzeko.

Eusko Jaurlaritzak bultzatutako kudeaketa eredua da, erreferentzia- nazioarteko kudeaketa ereduarekin bat datorrena (Europako EFQM- European Foundation for Quality Management Europar eredua, Japoniako DEMING-JUSE eredua -Zientzialari eta Ingeniarien Japoniako Batasuna-, Amerikako Malcom Baldrige eredua, Kudeaketako bikaintasunaren iberoamerikar eredua - FUNDI-BEQ, Kudeaketako Iberoamerikako Fundazioa). Euskadiko jarduera ekonomiko hainbat sektoretako erakundeetako kudeaketan adituak diren pertsonen parte hartzearen eta adostasunaren ondorioz sortu zen, eta sistematikoki berrikusi eta hobetu da (azken berrikuspena: 2023an).

Eredu honek elementu eta praktika onen esparru orokor bat eskaintzen du, edozein erakundetan aplikatu daitezkeenak, sektorea, tamaina edo kudeaketan daukan aurrerapen maila zeinahi delarik ere. Horretarako, azken hamarkadetan hainbat arlotatik enpresa kudeaketarekin lotuta egindako ekarpenetan ageri diren kontzeptuak txertatu dira:

- Bezeroaganako orientazioa
- Prozesuen eta gertaeren araberako kudeaketa
- Aliantzen garapena
- Pertsonen garapena eta esku hartzea
- Lidergoa eta helburuetan izan beharreko jarraitutasuna
- Gizarte erantzukizuna
- Emaitzei begirako orientazioa
- Ikaskuntza, berrikuntza eta etengabeko hobekuntza

Ereduak 6 elementutan egituratzen den lehiakortasun iraunkorra lortzeko kudeaketa-sistema egokia ezartzen du (5 Eragile eta Emaitzak):

**KUDEAKETA
AURRERATUAREN
EREDUA**

**KLIK EGIN
GRAFIKOA
IKUSTEKO**



2 KUDEAKETA AURRERATUAREN EREDUA, EUSKADIKO MERKATARITZAKO BULEGO TEKNIKOAK KUDEATZEKO ERREFERENTE GISA

>> 2.1.- KUDEAKETA AURRERATUAREN EREDUAREN SARRERA

Elementu bakoitza azpielementutan dago banatuta (guztira, 23), eta horietan biltzen dira kudeaketaren praktika onak, erreferentzia gisa.

ELEMENTUEN
BANAKATZEA

KLIK EGIN
GRAFIKOA
IKUSTEKO



Kudeaketa Aurreratuaren Eredua (KAE) ondorengoetarako erabil daiteke:

- Kudeaketari buruzko ikaskuntza-iturria, egungo joerak argi eta erraz txertatzen dituelako
- Erakundearen kudeaketari buruzko hausnarketarako tresna (autoebaluazioa edo autodiagnostikoa, kontrastea edo kanpo-ebaluazioa), aurrerapen-maila eta lantzen jarraitu beharreko alderdiak identifikatzeko

Eragileak Programak Merkataritzako Bulego Teknikoen (MBT) kudeaketa hobetzeko egiten du lan Ereduaren bi erabilera gauzatuz. Datozen orrialdeetan azalduko da nola erabili Eredua bulegoen kudeaketan, eta adieraziko da zein diren formatuak eta lortutako emaitzen adibideak (hasierako autoebaluazioan hautemandakozer hobetuak), praktikan aplikatu ahal izateko.

>> 2.2.- KUDEAKETA AURRERATUAREN EREDUA, KUDEAKETA SISTEMAREN (AUTO) EBALUATZEKO TRESNA GISA

Hauxe da Kudeaketa Aurreratuaren Eredua kudeaketa sistemaren **(auto) ebaluaziorako edo (auto) diagnostikorako tresna** gisa erabiltzean jarraitu beharreko prozesua, indarguneak eta zer hobetuak identifikatu ahal izateko:

1. FASEA.- GOGOETA ETA ANALISIA

“Kudeaketa Aurreratuaren Eredua” irakurketa (sakatu [hemen](#) eredua deskargatzeko).

Merkataritzako Bulego Teknikoan egiten den elementu bakoitzaren kudeaketari buruzko gogoeta, “**Autoebaluaziorako Galdetegian**” oinarrituta (sakatu [hemen](#) autoebaluaziorako galdetegia deskargatzeko. Galdetegian aurrerago aipatuko ditugun 1, 2 eta 3 formatuak sartzen dira).

2. FASEA.- KUDEAKETAREN DIAGNOSTIKOA (INDARGUNEAK ETA ZER HOBETUAK IDENTIFIKATZEA) (1. FORMATUA)

Autoebaluazioa egin ondoren, “**Kudeaketaren diagnostikoa**” osatzen da, detektatutako indargune eta zer hobetuekin.

3. FASEA.- ZER HOBETUEN LEHENTASUNA (2. FORMATUA)

Bulego bakoitzak bere ezaugarri berezien arabera, lehentasunak ezarri behar ditu; alegia, erabaki behar du zer indargune egonkortu behar den are gehiago, eta hobetzeko zer arlori heldu behar zaien.

2 KUDEAKETA AURRERATUAREN EREDUA, EUSKADIKO MERKATARITZAKO BULEGO TEKNIKOAK KUDEATZEKO ERREFERENTE GISA

>> 2.2.- KUDEAKETA AURRERATUAREN EREDUA, KUDEAKETA SISTEMAREN (AUTO) EBALUATZEKO TRESNA GISA

4. FASEA.- HOBETUNTZA EKINTZEN PLANA (3. FORMATUA)

Ondorioz, dagozkion jarduketak planak ezarri behar ditu, eta behar dituen hobetuntza tresnak eta kudeaketa metodologiak abiarazi behar ditu.

**KAEREN ARABERA
KUDEAKETAREN
AUTOEBALUAZIOA**

KLIK EGIN
GRAFIKOA
IKUSTEKO



**BERRIKUNTZA
ELEMENTUAREN
KUDEAKETAREN
DIAGNOSTIKOA**

KLIK EGIN
GRAFIKOA
IKUSTEKO



NOLA ERABILI KUDEAKETA AURRERATUAREN EREDUA MERKATARITZAKO BULEGO TEKNIKOETAN KUDEAKETA SISTEMAREN (AUTO) EBALUAZIOARAKO EDO (AUTO) DIAGNOSTIKORAKO TRESNA GISA, INDARGUNEAK ETA ZER HOBETUAK IDENTIFIKATZEKO

**NOLA ERABILI KUDEAKETA
AURRERATUAREN EREDUA**

KLIK EGIN
GRAFIKOA
IKUSTEKO



2 KUDEAKETA AURRERATUAREN EREDUA, EUSKADIKO MERKATARITZAKO BULEGO TEKNIKOAK KUDEATZEKO ERREFERENTE GISA

>> 2.3.- KUDEAKETA AURRERATUAREN EREDUA, KUDEAKETAKO PRAKTIKA ONEN ERREFERENTE GISA

2.3.1.- ESTRATEGIAREN KUDEAKETA (1. ELEMENTUA)

*Kudeaketa Aurreratuaren Ereduen arabera, erakunde aurreratu batek **beharrezko informazio estrategikoa** dauka, eta horrekin **partaidetzazko gogoe-ta prozesuak** gauzatu beharko lituzke, **estrategia** bat zehazteko, ondoren **hedatu eta jakinarazi** behar dena, beharrezko baliabideak eskainita.*

Estrategiaren kudeaketan, erakunde aurreratu batek garrantzia ematen dio bere helburuari, antolamendu eta gobernantza ereduari, kudeaketa etikoari eta erabakiak hartzeko malgutasunari eta arintasunari. Halaber, ingurumen eta gizarte erronkekin bat etortzea landu beharko luke, eta estrategiak bere konpromisoak behar bezala betetzen laguntzen duen aztertu.

ESTRATEGIAREN KUDEAKETAREN GAKOAK

- Estrategia definitzeko beharrezko informazioa identifikatzea eta kudeatzea
- Informazio garrantzitsutik abiatuta hausnartzea, helburuak definitzea, jarduera ildoak ezartzea
- Helburuak eta ildoak epe laburreko ekintza plan batean hedatzea (urteko ekintza plana)
- Estrategia eta ekintza plana jakinaraztea, berrikustea eta eguneratzea

ESTRATEGIAREN KUDEAKETAREN IKUSPEGIA MBT-ETAN

Merkataritzako Bulego Teknikoetan, berenplangintza eta etorkizuna bulegoen beraien kontzepzioak eta erregulazioak baldintzatzen ditu, eta urtero berritzen dira.

Plangintzak bat etorri behar du Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Zuzendaritzak eta haren kudeaketan zerikusia duten interes taldeek emandako jarraibideekin.

Ezarritako helburuak lortzeko, MBTaren Estrategiaren definizioa eta Ekintza Planetan izango duen hedapena osatzen duten elementu eta urrats guztiak landu behar dira:

- Estrategia definitzeko beharrezkoa den informazio garrantzitsu guztia identifikatzea, biltzea eta kudeatzea
 - Interes taldeak identifikatzea. Haien behar eta itxaropenetara hurbiltzea
 - Barruko eta inguruko informazio garrantzitsua: zaintza, analisia eta diagnostikoa
- Abiaturuko egoerari buruzko gogoeta egitea, helburuak definitzea eta horiek lortzeko estrategia eta jardunbide ildoak ezartzea
 - MBTaren Misioa eta Zerbitzuak definitzea, Eusko Jaurlaritzaren jarraibideekin bat etorritik
 - MBTaren Bisioa definitzea, Eusko Jaurlaritzaren jarraibideekin bat etorritik

2 KUDEAKETA AURRERATUAREN EREDUA, EUSKADIKO MERKATARITZAKO BULEGO TEKNIKOAK KUDEATZEKO ERREFERENTE GISA

>> 2.3.- KUDEAKETA AURRERATUAREN EREDUA, KUDEAKETAKO PRAKTIKA ONEN ERREFERENTE GISA

► Estrategia ekintza plan operatiboetan hedatzea

- MBTaren urteko ekintza plana egitea, MBTentzako laguntzei buruzko Eusko Jaurlaritzaren Aginduaren jarraibideen arabera (MBTaren urteko eskaera)

2023-2024 laguntzen deialdian, alderdi hauek jasotzen dira jardueraz/ helburuen ardatz gisa:

1. Eraldaketa digitaleko prozesuei buruz sentsibilizatzea eta sustatzea
2. Berrikuntzarekin zerikusia duten prozesuei buruz sentsibilizatzea eta sustatzea
3. Kudeaketaren kalitatearekin zerikusia duten prozesuei buruz sentsibilizatzea eta sustatzea
4. Lankidetzaz prozesuak bultzatzea, hiri inguruneetan
5. Lankidetzaz prozesuak bultzatzea, banaketa katean
6. Ekintzailetzaren eta enpresa transmisioaren arloko prozesuen jarraipena egitea eta horiek bultzatzea
7. Hirugarren sektoreko estrategiak sustatzea udal edo eskualde mailan(ostalaritza, zerbitzuak, kultura, ondarea edo beste sektore batzuk)
8. Kontsumitzaileentzat balio erantsia sortzeko eta xedeko publikoa fidelizatzeko ekintzak garatzea

9. Garapen jasangarriarekin eta/edo energia efizientziarekin lotutako estrategiak garatzea, baita autokontsumorako eguzki energia fotovoltaikoa ezartzea sustatzen duten Energia Komunitateak sustatzea ere

Gainera, proiektuan genero ikuspegia sartzea eskatzen da.

► Estrategiaren elementu nagusien berri ematea interes taldeei

► Estrategia aldian behin berrikusi eta eguneratzea

- Ekintza plana gauzatzen dela eta helburuak betetzen direla jakiteko jarraipen sistematikoa egitea

**ESTRATEGIA ELEMENTUA
(URTEKO PLANIFIKAZIOA)**

**KLIK EGIN
GRAFIKOA
IKUSTEKO**



2 KUDEAKETA AURRERATUAREN EREDUA, EUSKADIKO MERKATARITZAKO BULEGO TEKNIKOAK KUDEATZEKO ERREFERENTE GISA

>> 2.3.- KUDEAKETA AURRERATUAREN EREDUA, KUDEAKETAKO PRAKTIKA ONEN ERREFERENTE GISA

E.1 NOLA KUDEATZEN DUGUN ESTRATEGIA DEFINITZEKO BEHARREZKO INFORMAZIOA

Informazio garrantzitsua izango da, hain zuzen, estrategia eta plangintza definitu eta garatzeko lagungarria izango dena.

Ezinbestekoa da informazio gakoa eta informazio iturriak identifikatzea, bai eta erabakitzea informazio hori nola lortu, aztertu, lehenetsi, banatu eta egunean eduki.

Horretarako, kontuan hartu behar da zein diren gure bulegoaren **“interes talde”** garrantzitsuenak, eta jakin behar dugu zein diren horiek gaur egun dituzten premiak eta igurikapenak produktu zein zerbitzuei dagokienez, bai eta nolakoa den bulegoarekin duten harremana ere.

Gainera, **inguru orokorraren** eta **jarduera sektorearen** bilakaera eta horrek bulegoan duen eragina ezagutu behar dira.

Eta, azkenik, **bulegoko barne informazioa**.

1. PAUSOA: MBT-REN INTERES TALDEAK ETA HORIEK BULEGOAREKIKO DITUZTEN PREMIAK ETA IGURIKAPENAK IDENTIFIKATZEA

Erakunde guztiek dituzte interes taldeak, nahiz eta ez dauden beti identifikatuta.

Interes talde deritze, hain zuzen, bulego bati begirako interesa (zuzena edo zeharkakoa) duten pertsona edo erakundeei, izan euren jarduera zein lorpenetan eragina dutelako, izan bulegoaren menpe daudelako.

- Barneko interes taldeak izango dira, hain zuzen, bulegoaren baitako pertsonak
- Eta kanpoko interes taldeak, berriz, jabeak (akziodunak, patroiak), inbertitzaileak, hartzaile edo erabiltzaileak (bezeroak), erakunde hornitzaileak, aliatuak, erakunde publikoak eta komunitatearen edo gizartearen ordezkariak, alegia, gizartea, oro har

**MBT-EN LANAREN EMAITZAK
(AUTOEBALUAZIOAN
HAUTEMANDAKO ZER
HOBETUAK)**

KLIK EGIN
EMAITZA
IKUSTEKO



2. PAUSOA: PLANGINTZARAKO GARRANTZITSUA DEN INGURUKO ETA BARNEKO INFORMAZIOA IDENTIFIKATZEA

Zeregina da **ingurune orokorraren** alderdi ekonomikoak, politikoak, legezkoak, sozialak eta abar identifikatzea, merkataritzari buruzko egoera, joera eta kontzeptu berriekin batera: **jarduera sektorearen (merkataritza)** erreferentziazko erakundeak eta eskumenak, hartzaileak / erabiltzaileak (bezeroak) / merkatuak, erakunde hornitzaileak, etab.

Era berean, gaitasunei, errendimenduari eta lortutako emaitzei buruzko **barne** informazioa identifikatu beharko da.

**MBT-EN LANAREN EMAITZAK
(AUTOEBALUAZIOAN
HAUTEMANDAKO ZER
HOBETUAK)**

KLIK EGIN
EMAITZA
IKUSTEKO



2 KUDEAKETA AURRERATUAREN EREDUA, EUSKADIKO MERKATARITZAKO BULEGO TEKNIKOAK KUDEATZEKO ERREFERENTE GISA

>> 2.3.- KUDEAKETA AURRERATUAREN EREDUA, KUDEAKETAKO PRAKTIKA ONEN ERREFERENTE GISA

E.2 NOLA HAUSNARTZEN, EZARTZEN ETA HEDATZEN DUGUN ESTRATEGIA

Gogoeta eta urteko plangintza egiteko, ezinbestekoa da **prosesua / metodoa** definitzea.

Era berean, bulegoaren epe luzeko elementu gakoak identifikatu behar dira: **misioa, bisioa** eta balioak, garapen estrategikoaren oinarri gisa.

Epe luzeko helburuak eta estrategiak definitu, eta interes talde bakoitzaren premiak eta igurikapenak orekatu behar dira.

3. PAUSOA: ABIABURUKO EGOERAREN DIAGNOSTIKOA (AMIA)

Plangintza bat osatzeko abiaburua gogoeta da, bai eta **egoeraren analisisa** ere.

- Kanpo** analisisa. *Non gaude?*

Bulegoaren jardueran eragina izan dezaketen ingurune orokorreko eta jarduera sektoreko faktoreak identifikatzea du helburu; izan daitezke: saihestu beharreko **MEHATXUAK** edo hura garatzeko baliatu beharreko **AUKERAK**

- Barne** araudia. *Zer egingo dugu? Eta nola egingo dugu?*

Kudeaketaren eta haren emaitzen **INDARGUNEAK** eta **AHULEZIAK** identifikatzea du helburu, hau da, sustatu/finkatu behar diren faktoreak eta hobetu behar direnak

6. FORMATUA.- ABIABURUKO EGOERAREN DIAGNOSTIKOA-AMIA

BARNE ANALISIA	KANPO ANALISIA
AHULGUNEAK	MEHATXUAK
INDARGUNEAK	AUKERAK



4. PAUSOA: MISIOA (BIR) DEFINITZEA

Misioa da bulegoaren helburua edo izateko arrazoia definitzen duen adierazpena; zergatik eta zertarako dagoen azaltzen duena:

- NOR** DEN
- ZER** EGITEN DUEN (zer premiari eskaintzen dien arreta)
- NORENTZAT** (hartzaileak / erabiltzaileak (bezeroak))
- NOLA** EGITEN DUEN (zer jarduera, produktu edo zerbitzuren bidez)

**MBT-EN LANAREN EMAITZAK
(AUTOEBALUAZIOAN
HAUTEMANDAKO ZER
HOBETUAK)**

**KLIK EGIN
EMAITZA
IKUSTEKO**



2 KUDEAKETA AURRERATUAREN EREDUA, EUSKADIKO MERKATARITZAKO BULEGO TEKNIKOAK KUDEATZEKO ERREFERENTE GISA

>> 2.3.- KUDEAKETA AURRERATUAREN EREDUA, KUDEAKETAKO PRAKTIKA ONEN ERREFERENTE GISA

5. PAUSOA: MBT-REN BISIOA DEFINITZEA

Bisioa, hain zuzen, etorkizunean izan nahi den bulego motaren deskribapena da.

- **ZER** izan nahi duen
- **NORA** iritsi nahi duen
- **NOLA** ikusi nahi duen bere burua
- Gainerakoek **NOLA** ikustea nahi duen

Bisioak izan beharko du:

- Laburra
- Argia
- Partekatua
- Irisgarria
- Motibatzailea
- Helburuen bitartez aldian behin berrikusia

**MBT-EN LANAREN EMAITZAK
(AUTOEBALUAZIOAN
HAUTEMANDAKO ZER
HOBETUAK)**

KLIK EGIN
EMAITZA
IKUSTEKO



Misioarekin eta Bisioarekin bat etorritik, **helburu** estrategikoak eta **jarduera ildoak** zehaztu behar dira, zeinak, Merkataritzako Bulego Teknikoei dagokienez, dagoeneko zehaztuta dauden Merkataritzako Bulego Teknikoen funtzionamendurako laguntza programa arautzen duen Aginduan:

- Eraldaketa digitalarekiko sentsibilizazioa eta horrekin lotutako prozesuak bultzatzea
- Berrikuntzarekiko sentsibilizazioa eta horrekin lotutako prozesuak bultzatzea
- Kudeaketaren kalitatearekiko sentsibilizazioa eta horrekin lotutako prozesuak bultzatzea
- Lankidetzaren prozesuak bultzatzea, hiri inguruneetan
- Lankidetzaren prozesuak bultzatzea, banaketa katean
- Ekintzailetzaren eta enpresa transmisioaren arloko prozesuen jarraipena egitea eta horiek bultzatzea
- Udalerrietan eta/edo eskualdeetan hirugarren sektoreko estrategiak bultzatzea (ostalaritza, zerbitzuak, kultura, ondarea edo beste sektore batzuk)
- Konsumitzaileentzako balio erantsia sortzeko eta xedeko publikoaren fideltasuna lortzeko ekintzak garatzea
- Garapen jasangarriarekin eta/edo energia efizientziarekin lotutako estrategiak garatzea, baita autokontsumorako eguzki energia fotovoltaikoa ezartzea sustatzen duten Energia Komunitateak sustatzea ere

Testuinguru horretan, hurrengo urratsa helburuak eta ildoak ekintzetan hedatzea izango da.

2 KUDEAKETA AURRERATUAREN EREDUA, EUSKADIKO MERKATARITZAKO BULEGO TEKNIKOAK KUDEATZEKO ERREFERENTE GISA

>> 2.3.- KUDEAKETA AURRERATUAREN EREDUA, KUDEAKETAKO PRAKTIKA ONEN ERREFERENTE GISA

E.3 NOLA HEDATZEN ETA KOMUNIKATZEN DUGUN ESTRATEGIA

6. PAUSOA: EPE LUZE ZEIN LABURREKO HELBURUAK, ESTRATEGIAK ETA EKINTZA PLANAK DEFINITZEA

Ekintza plan bat helburu jakin bat lortzeko gauzatuko diren jarduerak zehaztea da.

Ekintza plan orok, **helburu/jarduera ildo** bakoitzeko, osagai hauek ditu

1. **Helburuak** lortzeko gauzatu beharreko **ekintza** zehatzak.
2. Lotutako **helburu operatiboa**.
3. Ekintza bakoitzaren garapenaren arduradunak.
4. **Lehentasuna**, ezarritako lehentasun-irizpideen arabera.
5. Jarraipen eta kontrolerako **adierazlea(k)** landuko den helburu bakoitzerako, ekintza benetan gauzatu eta bete den jakiteko aukera emango dutena, **kalkulatzeko modua eta neurketaren maiztasuna** zehaztuta.
6. **Beharrezko baliabideak eta aurrekontua**

Estrategia eta ekintza planak komunikatzeari dagokionez, garrantzitsua da plan bat definitzea, interes taldeei helarazteko garrantzitsuentzat jotzen diren alderdiak identifikatuta: zer komunikatu nahi den (Misioa, Bisioa, Helburuak, etab.), nori (interes taldeak), noiz (zer unetan eta zenbatean behin) eta zer kanalen bidez (webgunea, posta, bilerak, etab.).

**MBT-EN LANAREN EMAITZAK
(AUTOEBALUAZIOAN
HAUTEMANDAKO ZER
HOBETUAK)**

KLIK EGIN
EMAITZA
IKUSTEKO



E4.-NOLA BERRIKUSTEN ETA EGUNERATZEN DUGUN ESTRATEGIA

Estrategiaren jarraipena, berrikuspena eta eguneraketa egiteko, **metodo edo sistematika bat behar da zereginen aurrerapena eta emaitzak kontrolatzeko**.

Beharrezkoa bada (desbideratzeak/zuzenketak), **emaitzetan** oinarrituta sartu beharko dira **aldaketak** (**adierazleen** bidezko neurketa).

7. PAUSOA: URTEKO PLANARI JARRAIPENA EGITEA ETA BERRIKUSTEA

**MBT-EN LANAREN EMAITZAK
(AUTOEBALUAZIOAN
HAUTEMANDAKO ZER
HOBETUAK)**

KLIK EGIN
EMAITZA
IKUSTEKO



2 KUDEAKETA AURRERATUAREN EREDUA, EUSKADIKO MERKATARITZAKO BULEGO TEKNIKOAK KUDEATZEKO ERREFERENTE GISA

>> 2.3.- KUDEAKETA AURRERATUAREN EREDUA, KUDEAKETAKO PRAKTIKA ONEN ERREFERENTE GISA

2.3.2.- BEZEROEN ETA PROZESUEN KUDEAKETA (2. ELEMENTUA)

*Kudeaketa Aurreratuaren Ereduen arabera, erakunde aurreratu batek **bere produktuak eta zerbitzuak jasotzen dituztenen edo jaso ditzaketenen aldeko orientazio argia** du. **Bezeroei buruzko ezagutza globala eta balio ekarpen bereizgarria** dira **lehiarako abantailaren funtsa**.*

*Erakunde aurreratu batek **bere bezeroekiko harremanak zaintzen** ditu eta **efizientea da prozesu guztietan**, balioa emateko, produktuen eta zerbitzuen diseinu, garapen, komertzializazio, ekoizpen eta prestaziotik hasi, eta banaketa eta mantentze lanetarako. Horretarako, **baliabide** ekonomikoen, materialen eta informazioaren **kudeaketa efizientea** egin beharko luke, eta **erakunde hornitzaile fidagarri eta aurreratuekin** lan egin, erakunde hedatuaren ikuspegiekin.*

BEZEROEN ETA PROZESUEN KUDEAKETAREN GAKOAK

Bezeroen eta Prozesuen kudeaketa aurreratuak hau dakar:

- Bezero orientazioa, izan oraingoak zein potentzialak. Bezeroak ezagutzea, oraingoak eta potentzialak
- Balio ekarpen bereizgarria
- Bezeroekiko harremanak kudeatzea, eskaintza hurbiltzea eta haiekin lotura iraunkorrak sortzea
- Jardueren efizientzia
- Erakunde hornitzaileen fidagarritasuna

BEZEROEN KUDEAKETAREN IKUSPEGIA MBT-ETAN

Merkataritzako Bulego Teknikoetan, beren produktu/zerbitzuen bezeroak (hartzaileak/erabiltzaileak) merkataritza, ostalaritza eta hiri zerbitzuetako enpresak dira (profesionalak eta pertsonalak), elkartuta edo elkartu gabe daudenak, baita merkataritza jardueren pertsona ekintzaileak ere, eta baita sektoreko enpresa elkarteak ere.

Bezeroen (hartzaileak/erabiltzaileak) eta jardueren kudeaketa hobetzeko, ezinbestekoa da:

- Egungo bezeroak eta bezero potentzialak identifikatzea eta ezagutzea. Haien beharrei eta itxaropenei buruzko informazioa biltzeko sistematikak ezartzea, baita bulegoarekin eta horren zerbitzuekin duten gogobetetze mailari buruz ere
- Bezeroen beharrei erantzuteko produktuak/zerbitzuak eta jarduerak diseinatzea eta garatzea, eta haiei jakinaraztea/hurbiltzea, estrategia eta ekintza komertzialen eta marketinaren bidez, hainbat kanal erabiliz gure eskaintza bezeroei/erabiltzaileei hurbiltzeko
- Ekintza komertzialen/marketinaren emaitzen jarraipena egitea

**BEZEROAK ELEMENTUA
(SALTOKIAK ZERBITZUEN
HARTZAILEAK/
ERABILTZAILEAK)**

**KLIK EGIN
GRAFIKOA
IKUSTEKO**



2 KUDEAKETA AURRERATUAREN EREDUA, EUSKADIKO MERKATARITZAKO BULEGO TEKNIKOAK KUDEATZEKO ERREFERENTE GISA

>> 2.3.- KUDEAKETA AURRERATUAREN EREDUA, KUDEAKETAKO PRAKTIKA ONEN ERREFERENTE GISA

C.1 NOLA KUDEATZEN DITUGUN BEZEROEKIKO HARREMANAK

Funtsezkoa da egungo bezeroen(hartzaileak/erabiltzaileak) eta potentzialen premiak eta igurikapenak ezagutzea (esplizituak eta inplizituak, egungoak eta etorkizunekoak), bezero profilaren, jarduera azpisektorearen, genero ikuspegiaren, kokapen geografikoaren eta bestelakoen arabera.

Horretarako, informazioa biltzeko mekanismoak ezar daitezke; esaterako: ikerketak, foku taldeak, inkestak, gure produktu/zerbitzuei emandako erabilerei eta ohiturei behaketa, topaketak edo bilerak, bisitak, etab., teknologiak ematen dituen aukerak aprobetxatuz.

1. PAUSOA: ORAINGO BEZEROEN ETA POTENTZIALEN (HARTZAILEAK/ERABILTZAILEAK) INFORMAZIOA BILTZEKO MODUA SISTEMATIZATZEA

Zein dira gure bezeroak (hartzaileak/erabiltzaileak)?

Haiei buruzko zer informazio daukagu? (Datu baseak, gogobetetzea, MB-Tren zerbitzuak erabiltzeko dituzten arrazoiak, iradokizunak, etab.)

Nola eta noiz jasotzen dugu informazioa? (Inkestak, elkarrizketak, bilerak, merkatu ikerketak, foku taldeak, gure produktu edo zerbitzuei ematen dieten erabilera eta ohiturei behatzea, etab.)

Bezeroen (hartzaileak/erabiltzaileak) **PROFILA** identifikatu eta deskribatzea. (jasota 4. Formatuan_Interes taldeak, Bezeroak).

Gaur egungo eta balizko tipologia desberdinen Bezeroen (hartzaile/erabiltzaile),

BEHARRAK ETA ITXAROPENAK, esplizituak eta inplizituak, ezagutzea. (jasota 4. Formatuan_Interes taldeak, Bezeroak; hainbat metodologiaren bidez: inkestak, elkarrizketak, talde fokalak, etab., alderatzea gomendatzen da).

**MBT-EN LANAREN EMAITZAK
(AUTOEBALUAZIOAN
HAUTEMANDAKO ZER
HOBETUAK)**

**KLIK EGIN
EMAITZA
IKUSTEKO**



2. PAUSOA: BEZEROAK MBT-REKIN DUEN GOGOBBETETZEA NEURTZEKO METODO BAT EDO BATZUK DEFINITZEA ETA EZARTZEA

Premiez eta igurikapenez gain, beharrezkoa da jakitea zer GOGOBBETETZE maila duten bezeroek (hartzaileek/erabiltzaileek) MBTak haien premiei eta igurikapenei emandako erantzunarekin, haien gogobetetzea hobetu eta maximizatu ahal izateko eta, hala, fidelizatzeko.

GOGOBBETETZEA gertatzen da, hain zuzen, PERTZEPZIOA (emaitzarekin sentitzen dena) eta IGURIKAPENA (espero dena) bat datozenean. Eta egiazko gogobetetzea gertatzen da espero duguna baino gehiago jasotzen denean.

2 KUDEAKETA AURRERATUAREN EREDUA, EUSKADIKO MERKATARITZAKO BULEGO TEKNIKOAK KUDEATZEKO ERREFERENTE GISA

>> 2.3.- KUDEAKETA AURRERATUAREN EREDUA, KUDEAKETAKO PRAKTIKA ONEN ERREFERENTE GISA

KEXAK ETA ERREKLAMAZIOAK ere bezeroaren gogobetetzearen berri jakiteko iturri dira. Bezeroen (hartzaileen/erabiltzaileen) eskaerei, iradokizunei, kexei edo laguntza eskakizunei arin erantzutea lagungarria da gogobetetze maila hobetzeko.

Horretarako, pertzepzioa neurtzeko mekanismoak ezarri behar dira (inkestak, bilerak, etab.), bai eta bezeroaren gogobetetzeari buruzko zeharkako emaitzak neurtzekoak ere (kexak, erreklamazioak, erabiltzaile gisa errepikatzea, etab.).

Bulego bakoitzak erabaki beharko du zein den beretzat mekanismorik onena, bere bezeroen (hartzaileak/erabiltzaileak) ezaugarri espezifikoaren arabera.

C.2 BEZEROEI BIDERATUTAKO PRODUKTUAK ETA ZERBITZUAK NOLA DISEINATZEN ETA GARATZEN DITUGUN

3. PAUSOA: PRODUKTU/ZERBITZUAREN ETA BEZEROAREN (HARTZAILEA/ERABILTZAILEA) ARTEKO HARREMANA IDENTIFIKATZEA

Bulegoek bermatu behar dute eskaintzen dituzten produktuak/zerbitzuek bezeroen (hartzaileen/erabiltzaileen) tipologiaen premiei eta igurikape-nei erantzuten dietela, eta haien eskaintzak bilakaera bat izan behar duela produktu/zerbitzu berriekin, daudenak hobetuz edo zerbitzu osagarriak txertatuz.

Produktu/zerbitzu berriak diseinatu eta garatzeko, komenigarria da bezeroen (hartzaileak/erabiltzaileak) esku hartzea lortzea, bai eta hornitzaile eta beste interes talde batzuen ere.

**MBT-EN LANAREN EMAITZAK
(AUTOEBALUAZIOAN
HAUTEMANDAKO ZER
HOBETUAK)**

KLIK EGIN
EMAITZA
IKUSTEKO



4. PAUSOA: MBT-REN ERABILTZAILE/HARTZAILEEKIKO (BEZEROAK) KOMUNIKAZIOA SISTEMATIZATZEA

Produktuak/zerbitzuak bezeroei (hartzaileak/erabiltzaileak) ezagutarazteko, kokatzeko eta haiengana hurbiltzeko, bulegoek hainbat **salmenta-estrategia eta kanal azter ditzakete, eta marketin-planak egin**, markaren irudia indartzeko eta produktuak eta zerbitzuak ezagutarazteko (zuzeneko salmenta, Internet, merkataritza-sarea, sare sozialak, publizitatea, etab.), eta garatu ditugun estrategien, planen, salmenta-kanalen, merkataritza- eta komunikazio-ekintzen eta marka-irudiaren **eragina ebaluatu**.

**MBT-EN LANAREN EMAITZAK
(AUTOEBALUAZIOAN
HAUTEMANDAKO ZER
HOBETUAK)**

KLIK EGIN
EMAITZA
IKUSTEKO



2 KUDEAKETA AURRERATUAREN EREDUA, EUSKADIKO MERKATARITZAKO BULEGO TEKNIKOAK KUDEATZEKO ERREFERENTE GISA

>> 2.3.- KUDEAKETA AURRERATUAREN EREDUA, KUDEAKETAKO PRAKTIKA ONEN ERREFERENTE GISA

C.3 PRODUKTUAK ETA ZERBITZUAK NOLA EKOIZTEN, MERKATURATZEN ETA BANATZEN DITUGUN

Erakunde aurreratu batek **efiziente**a izan beharko luke produktu edo zerbitzu bat sortzeko behar diren **jarduera guztietan** (balio katea).

PROZESUEN KUDEAKETAREN GAKOAK

Kudeaketa aurreratuak hau eskatzen du:

- Zerbitzuak egiteko lan metodoak garatzea eta jarduera planifikatzea, helburuak, baldintzak eta konpromisoak betetzen direla ziurtatzeko, batez ere bezeroekin hartu direnak
- Zerbitzuak egiteko eta bezeroarengana hurbiltzeko prozesuetan berritzeko metodologiak ezartzea, arintasuna eta eraginkortasuna handitzeko, eta estrategia teknologikoetan oinarritzeko aukera ebaluatzea
- Hainbat komunikazio estrategia eta kanal aztertzea eta marketin planak egitea, markaren irudia indartzeko eta zerbitzuak ezagutarazteko (zuzenean, Internet, sare komertziala, sare sozialak, publizitatea, etab.)
- Merkataritza eta komunikazio estrategien, planen, kanalen eta ekintzen inpaktua ebaluatzea, baita markaren irudia ere

PROZESUEN KUDEAKETAREN IKUSPEGIA MBT-ETAN

Zeregin, jarduera eta proiektuen eraginkortasuna hobetzeko, **Merkataritzako Bulego Teknikoek** hau egin dezakete:

- **MBTaren jarduera nagusiak identifikatzea eta zehaztea**, nork, nola eta noiz egin behar diren definituz, eta zerbitzuak modu efizientean egiteko **lan sistematikak ezartzea**, horiek gauzatzea erraztuko duten metodologia, prozedura, jarraibide eta abarretan oinarrituta
- Jardueren jarraipena eta kontrola egiteko **adierazleak definitzea**, arduradunak eta helburuak identifikatuta, behar bezala egiten dela berma dezaten
- **Jarduerak planifikatzea**, faseak, epeak, beharrezko baliabideak, gauatzeko kostuak eta prozesuen efizientzia kontuan hartuta

**BEZEROAK ELEMENTUA-
PROZESUAK: BARNE-KU-
DEAKETAKO ETA ZERBI-
TZU ETA JARDUERAKO**

KLIK EGIN
GRAFIKOA
IKUSTEKO



2 KUDEAKETA AURRERATUAREN EREDUA, EUSKADIKO MERKATARITZAKO BULEGO TEKNIKOAK KUDEATZEKO ERREFERENTE GISA

>> 2.3.- KUDEAKETA AURRERATUAREN EREDUA, KUDEAKETAKO PRAKTIKA ONEN ERREFERENTE GISA

5. PAUSOA: LANEKO JARDUERAK ETA PROZESUAK SISTEMATIZATZEA

Nola gauzatzen ditugu jarduerak?

Nola kudeatzen ditugu zereginak?

Prozesuak identifikatuta eta sistematizatuta ditugu?

Prozedurak landu al ditugu?

ZER DA PROZESU BAT?

Elkarri lotutako JARDUEREN multzoa, BALIABIDE batzuk -SARRERAK- erabiltzen dituen (elementu materialak eta informazioaren edo pertsonen ingurukoak). Horiek pertsona/departamentu/enpresa batek ematen ditu -HORNITZAILEA-, eta modu logiko batean antolatzen dira, azkenean planifikatu eta nahi den EMAITZA -IRTEERA- bat lortzeko (produktua, zerbitzua, informazioa), prozesuan sortutako produktua edo zerbitzua jasotzen eta baloratzen duen hartzailleak -BEZEROA- preziatuko duena.

PROZESU BATEN ELEMENTUAK

1. JARDUERAK, zeregin errepikakorren sekuentzia
2. SARRERAK, beharrezko barne eta kanpo baliabideak, materialak, ekipak, informazioa, etab.
3. HORNITZAILEAK, barnekoak edo kanpokoak.
4. Prozesuan PARTE HARTZEN dutenak: nork/nortzuk egiten du/ dute zeregina (pertsonak, arloak, sailak, eta abar).

5. IRTEERA, prozesuaren emaitza -produktua, zerbitzua, informazioa-
6. BEZEROAK, barneko edo kanpokoak, irteera fluxuaren hartzailleak.
7. EFIKAZIAREN ETA EFIZIENTZIAREN ADIERAZLEAK, prozesuaren funtzionamenduaren neurketak

**EZAUGARRI KOMUNAK /
PROZESUAREN
EZAUGARRIAK**

**KLIK EGIN
GRAFIKOA
IKUSTEKO**



PROZESU MOTAK

Parte hartzen duten departamentu edo sekzio kopuruaren arabera:

- MULTIFUNTZIONALAK
- FUNTZIONALAK

Xedearen arabera:

- ESTRATEGIKOAK
- OPERATIBOAK
- LAGUNGARRIAK

Garrantziaren arabera:

- GAKOAK
- LEHENTASUNEZKOAK

2 KUDEAKETA AURRERATUAREN EREDUA, EUSKADIKO MERKATARITZAKO BULEGO TEKNIKOAK KUDEATZEKO ERREFERENTE GISA

>> 2.3.- KUDEAKETA AURRERATUAREN EREDUA, KUDEAKETAKO PRAKTIKA ONEN ERREFERENTE GISA

ZER DA PROZESU BIDEZKO KUDEAKETA

- Prozesu bidezko kudeaketa da prozesu baten kudeaketa erakunde osora orokortzea
- Erakundearen helburuak lortzeko balio duen kudeaketa tresna bat da
- Erakundearen kontzeptua aldatzea dakar, fluxu sistema baten gisa, departamentu multzo baten ordeztu
- Erakundea bezeroaren beharretara bideratzen du, produktuek eta zerbitzuek haien eskakizunak betetzen dituztela ziurtatzeko
- Emaizta aurreikusgarriagoak eta kontrolagarriagoak lortzea ahalbidetzen du
- Efizientziarik ezak eta xahutzeak ezabatzen laguntzen du
- PDCA etengabeko hobekuntzako zikloa aplikatzen laguntzen du

ZER ESKATZEN DU PROZESU BIDEZKO KUDEAKETAK

ZER ESKATZEN DU
PROZESU BIDEZKO
KUDEAKETAK

KLIK EGIN
GRAFIKOA
IKUSTEKO



Zein dira MBTen jardueraren prozesuak?

5.1 PAUSOA: MBTEN JARDUERAREN PROZESUAK IDENTIFIKATZEA ETA SAILKATZEA

- MBTak egiten dituen JARDUERA nagusiak: produktuak/zerbitzuak sortzeko zereginen multzoa/jardueren fluxua.¹
- Horien arteko HARREMANAK.
- Prozesu edo azpiprozesu bakoitzaren HARTZAILEAK identifikatzea -KANPOKOAK ETA BARNEKOAK-: sortzen dutena nori iristen zaion.

5.2 PAUSOA: PROZESUAK SAILKATZEA, HELBURUAREN ARABERA:

- ESTRATEGIKOAK: Erakundea mantentzeko eta aurrera egiteko beharrezko prozesuak dira.
- OPERATIBOAK: Harreman zuzena dute Misioarekin -JARDUERA- PRODUKTUA/ZERBITZUA- eta kanpoko hartzaileekin -BEZEROAK-, eta haien gogobetetzean eragin berezia dute.
- LAGUNGARRIAK: Prozesuei zereginak betetzen laguntzen dute, kanpoko hartzaileei begira.

Baliabideen kontsumoagatik eta/edo bezeroaren gogobetetasunean duten inpaktuagatik bereziki garrantzitsuak diren prozesuak identifikatuz (PROZESU GAKOAK).

¹ Kontuan hartu beharrekoak: MBTen interes taldeak (4. formatua-2. adibidea, Kudeaketa gida), Misioaren eta jardueren eta zerbitzuen deskribapena (7. formatua-3. adibidea, Kudeaketa gida) eta barneko zereginak (16. formatua, Kudeaketa gida).

2 KUDEAKETA AURRERATUAREN EREDUA, EUSKADIKO MERKATARITZAKO BULEGO TEKNIKOAK KUDEATZEKO ERREFERENTE GISA

>> 2.3.- KUDEAKETA AURRERATUAREN EREDUA, KUDEAKETAKO PRAKTIKA ONEN ERREFERENTE GISA

**MBT-EN LANAREN EMAITZAK
(AUTOEBALUAZIOAN
HAUTEMANDAKO ZER
HOBETUAK)**

KLIK EGIN
EMAITZA
IKUSTEKO



5.3 PAUSOA: MBTAREN ANTOLAKETA GRAFIKOKI IRUDIKATZEA, MAKROPROZESU GISA: PROZESUEN MAPA

**MBT-EN LANAREN EMAITZAK
(AUTOEBALUAZIOAN
HAUTEMANDAKO ZER
HOBETUAK)**

KLIK EGIN
EMAITZA
IKUSTEKO



5.4 PAUSOA: PROZESUAK DEFINITZEA: PROZESUAREN ELEMENTUAK IDENTIFIKATZEA; PROZESU GAKOETATIK HASTEAK KOMENI DA

**MBT-EN LANAREN EMAITZAK
(AUTOEBALUAZIOAN
HAUTEMANDAKO ZER
HOBETUAK)**

KLIK EGIN
EMAITZA
IKUSTEKO



5.5 PAUSOA: PROZESUEN IRUDIKAPEN GRAFIKOA: FLUXU DIAGRAMA

**MBT-EN LANAREN EMAITZAK
(AUTOEBALUAZIOAN
HAUTEMANDAKO ZER
HOBETUAK)**

KLIK EGIN
EMAITZA
IKUSTEKO



Fluxu diagrama bat eraikitzeke urratsak:

- Prosesuan parte hartzen duten pertsona guztiek osatutako talde bat osatzea.
- Honelako galderak planteatzea: Zein da lehenengo urratsa?, Zein da hurrengo urratsa?, Nondik dator zerbitzua/materiala?, Nola sartzen da zerbitzua/materiala prosesuan?, Nork hartzen du erabakia?, Zer gertatzen da erabakia BAIEZKOA bada?, Zer gertatzen da erabakia EZEZKOA bada?, Prosesuaren une honetan beste zerbait egin behar da?, Non doa eragiketa honen produktua/zerbitzua?, Zer proba egiten zaizkio produktuari prosesuaren zati bakoitzean?, Zer proba egiten zaizkio prosesuari?, Zer gertatzen da piezak edo zerbitzuak ez baditu baldintzak betetzen?
- Gomendagarria izaten da prosesuaren fluxu diagramarik orokorrena marrazten hastea, ondoren pauso bakoitza gehiago zehazteko, interesatzen zaizkigun ezaugarriekin (ardurak, artxiboa, denborak, lotutako dokumentazioa, etab.). Prosesu bat egiteko informazio baliagarria ematen diguten elementu guztiak jar daitezke (abisuak, etab.).
- Fluxu diagrama batean normalean erabiltzen diren sinbolo estandarrik hauek dira:

**MBT-EN LANAREN EMAITZAK
(AUTOEBALUAZIOAN
HAUTEMANDAKO ZER
HOBETUAK)**

KLIK EGIN
EMAITZA
IKUSTEKO



2 KUDEAKETA AURRERATUAREN EREDUA, EUSKADIKO MERKATARITZAKO BULEGO TEKNIKOAK KUDEATZEKO ERREFERENTE GISA

>> 2.3.- KUDEAKETA AURRERATUAREN EREDUA, KUDEAKETAKO PRAKTIKA ONEN ERREFERENTE GISA

5.6 PAUSOA: PROZESUAREN ESTANDARIZAZIOA: PROZEDURA

Hauek definitu beharko dira:

- XEDEA: prozedurarekin bete nahi diren helburu guztiak deskribatuko ditu.
- IRISMENA: argi eta garbi adierazi beharko du prozeduraren aplikazio eremua.
- METODOLOGIA: lehenik eta behin, helburua lortzeko jarraitu beharreko jarraibideak zehaztuko ditu. Jarraibide horiek egin beharreko sekuentziaren arabera aurkeztuko dira.
- ARDURAK: argi eta garbi adieraziko da arduraduna edo arduradunak nor diren, baita jarduera bakoitzean bete behar duten eginkizuna ere.
- ADIERAZLEAK: Neurtu beharreko alderdiak jardueren eraginkortasuna eta efizientzia egiaztatzeko. Prozesuaren azken emaitzaren kontrol partziala izateko eta egiten diren ekintzen emaitza ebaluatze garrantzitsuak diren adierazleak aukeratu behar dira, jarduerari dagozkionak.
- ERREFERENTZIAK: prozesuan sortutako dokumentazioa jasoko dute.

PROZESUAK KUDEATZEN LAGUNTZEKO BESTE TRESNA BATZUK

**MBT-EN LANAREN EMAITZAK
(AUTOEBALUAZIOAN
HAUTEMANDAKO ZER
HOBETUAK)**

KLIK EGIN
EMAITZA
IKUSTEKO



C.4 NOLA KUDEATZEN DITUGUN BESTE BALIABIDE BATZUK

Bulegoek hobetu dezakete:

- Prozesu edo metodo egituratuak definituz erosketak kudeatzeko eta azpikontratatzeko, baita erakunde hornitzaileak hautatzeko, jarraipena egiteko eta ebaluatze ere.
- Materialen, ekipamenduen eta instalazioen mantentze lanak eginez, horiek erabiltzen dituzten pertsonak inplikatur, haien ezagutza eta aprobetxamendua hobea izateko aukerak indartzeko.
- Datuen eta informazioaren kudeaketa zorrotza eginez, fidagarritasuna, irisgarritasuna eta trazabilitatea bermatzea ahalbidetzen duten sistemekin.

6.PAUSOA: EROSKETAK EGITEKO JARRAIBIDEAK ETA IRIZPIDEAK DEFINITZEA, BAI ETA HORNITZAILEEN ERRENDIMENDUA ALDIZKA EBALUATZEKO METODOA ERE

**MBT-EN LANAREN EMAITZAK
(AUTOEBALUAZIOAN
HAUTEMANDAKO ZER
HOBETUAK)**

KLIK EGIN
EMAITZA
IKUSTEKO



2 KUDEAKETA AURRERATUAREN EREDUA, EUSKADIKO MERKATARITZAKO BULEGO TEKNIKOAK KUDEATZEKO ERREFERENTE GISA

>> 2.3.- KUDEAKETA AURRERATUAREN EREDUA, KUDEAKETAKO PRAKTIKA ONEN ERREFERENTE GISA

2.3.3.- GIZARTEAREKIKO ETA INGURUMENAREKIKO KONPROMISOAREN KUDEAKETA (4. ELEMENTUA)

Kudeaketa Aurreratuaren Ereduen arabera, erakunde aurreratu batek **berak diharduen ingurune soziala osatzen duten erakundearen garapenaren alde** lan egiten du, haiengan duen inpaktua aztertuz eta zeregin sozial eraginkorragoa bete dezakeen jardueretan aktiboki parte hartuz, bere gaitasunekin, balioekin eta printzipio etikoekin bat eginda. Gainera, konpromisoa du ingurumen erronkei aurre egiteko eta, horrela, **ingurumena gehiago errespetatzen duen gizarte bati laguntzeko**.

GIZARTEAREN ETA INGURUMEN JASANGARRITASUNAREN ALDEKO KONPROMISOAREN KUDEAKETAREN GAKOAK

- Gizartea interes talde garrantzitsutzat hartzea, eta ingurumena erakundearen jardueraren eragina jaso dezakeen gunetzat
- **Ekarpen aktibo eta borondatezkoa arlo sozialean, ekonomikoan eta ingurumenekoan:** kudeaketapolitikak eta sistemak formalizatzea eta ekintzak garatzea, legezko betebeharrak betetzetik, izateko arrazoitik edo erakundearen asmotik haratago, erakundeak bere ingurunean eta bere interes taldeetan eragiten dituen inpaktu ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak kontrolatu ahal izateko

GIZARTEAREN ETA INGURUMEN JASANGARRITASUNAREN ALDEKO KONPROMISOAREN KUDEAKETAREN IKUSPEGIA MBT-ETAN

Gizarte eta ingurumen inpaktuaren kudeaketa hobetzeko, **Merkataritzako Bulego Teknikoek** hau egin beharko lukete:

- MBTaren erabaki edo jardueren ondorioz eragin positiboa edo negatiboa izan dezaketen **ingurune sozialeko pertsona eta erakunde esanguratsuak identifikatu** (kontsumitzaileen elkarteak, auzokoak, administrazioak, unibertsitateak, ikastetxeak, gizarte ekintzako erakundeak, erakunde hornitzaileak, etab.), baita **ingurumen arlokoak** ere (espazioak, erakundeak, etab.), eta **aztertu zer arazo, premia edo erronka jotzen diren lehentasunezkatzat**, legearen betekizunei aurrea hartuz edo horiek gaituz
- **Lortu beharreko helburuak definitu**, beste helburu estrategiko batzuekin lerrotatuta, **eta beren proiektu eta ekimen sozial eta ingurumenekoak garatu, edo beste ekimen kolektibo batzuekin bat egin**, gizartearen, ingurumen inpaktua murriztearen eta ingurumena lehengoratzearen aldeko konpromisoari dagokionez
- Gizarteari eta beste interes talde batzuei **eragin positibo eta negatibo esanguratsuen berri eman**, eta horiei buruz duten **ezagutza maila eta balorazioa ebaluatu**

**GIZARTEA ELEMENTUA:
BARNE-KUDEAKETAKOA
ETA ZERBITZU ETA
JARDUERAKOA**

**KLIK EGIN
GRAFIKOA
IKUSTEKO**



2 KUDEAKETA AURRERATUAREN EREDUA, EUSKADIKO MERKATARITZAKO BULEGO TEKNIKOAK KUDEATZEKO ERREFERENTE GISA

>> 2.3.- KUDEAKETA AURRERATUAREN EREDUA, KUDEAKETAKO PRAKTIKA ONEN ERREFERENTE GISA

1. PAUSOA: DEFINITZEA GIZARTEA NOR EDO NORTZUK DIREN, ZER ALDERDI SARTZEN DIREN ETA JARDUERA ESPARRUA

Zer da GIZARTEA MBTentzat interes talde gisa?

(Elkarrekiko harremanak ditugun interes taldeak, gure ingurune sozialean esanguratsutzat jotzen ditugunak, gure iritziz, zuzenean edo zeharka, gizartearekin dugun konpromisoaren eragina jaso dezaketenak. MBTaren jarduera eremu geografikokoa izan daiteke edo ez).

Erakunde motaren arabera, muga anbiguoak egon daitezke bezeroen eta gizartearen interesen artean; esate baterako, MBTei dagokienez, administrazio publikoaren edo berariaz gizarteari zuzendutako zerbitzuak dituzten erakundeen artean.

Bereizi:

BEZEROA VS GIZARTEA

 KLIK EGIN
 GRAFIKOA
 IKUSTEKO


Gizartea izan daiteke:

- Gizartea multzo gisa
- Gizarte hori osatzen duten interes talde espezifikoak. Interes taldeak hauek izan litezke:
 - Komunitatea oro har
 - Komunitateak, oro har, lehentasunezkoztat jotzen dituen arazoek bereziki eragindako kolektiboak edo pertsona taldeak (adinekoak, haurrak, genero indarkeriak eragindako pertsonak, iraupen luzeko langabeak, eskola porrota duten gazteak...)
 - Gizarte, auzo, kirol, kultura... erakunde eta elkarteak
 - Gizarte boluntarioak
 - Administrazio eta erakunde publikoak
 - Elkarte profesionalak
 - Ingurumena babesteko erakundeak
 - Komunikabideak
 - Ikastetxeak: eskolak, institutuak, unibertsitateak...
 - Sindikatuak
 - Enpresa erakundeak

**MBT-EN LANAREN EMAITZAK
 (AUTOEBALUAZIOAN
 HAUTEMANDAKO ZER
 HOBETUAK)**

 KLIK EGIN
 EMAITZA
 IKUSTEKO


2 KUDEAKETA AURRERATUAREN EREDUA, EUSKADIKO MERKATARITZAKO BULEGO TEKNIKOAK KUDEATZEKO ERREFERENTE GISA

>> 2.3.- KUDEAKETA AURRERATUAREN EREDUA, KUDEAKETAKO PRAKTIKA ONEN ERREFERENTE GISA

2. PAUSOA: GIZARTEAREKIKO ETA INGURUMENAREKIKO KONPROMISOARI BURUZKO HELBURUAK DEFINITZEA ETA POLITIKA ETA EKINTZAK GARATZEA

Zer jarduera eremutan gara ditzakegu MBTek gizartearekiko eta ingurumenarekiko konpromisoa?

(MBTaren konpromiso soziala adierazteko interes bereziko espazioak, gizartearen beraren behar eta eskakizunei dagokienez)

Helburu posibleak:

- Enplegua sortzea
- Inguruko enpresak garatzen laguntzea
- Urritasun fisikoak edo psikikoak dituzten pertsonak gizarteratzea
- Hezkuntza sistemaren garapena sustatzea
- Gizarte ekintzako erakundeekin eta agintariekin lankidetzan aritzea gizarte programetan
- Ingurumen inpaktua minimizatzea
- Ingurumena lehengoratztea

3. PAUSOA: GIZARTE ETA INGURUMEN PROIEKTU ETA EKIMEN PROPIOAK GARATZEA EDO BESTE TALDE BATZUEKIN BAT EGITEA

Hedapen eta jarduera eremu posible ohikoenak:

Tokiko komunitatearekin:

